IRAULTZA SOZIALISTAZ INDEPENDENTZIA

Aurkibidea

Zer da Kimetz 2

Oinarri ideologikoak 2

Helburuak 3

Alderdia 3

Krisia eta sozialdemokrazia 4

XXI.mendeko sozialismoa. Ideia zahar anti-marxisten teorizazioa. 5

Alderdi komunistaren beharra 7

Soilik sozialismoak bideratuko gaitu independentziara 10

Borroka kalean dago 13

KIMETZ

EUSKAL HERRIKO ERAKUNDE KOMUNISTA

Zer da Kimetz

Euskal erakunde komunista iraultzaileak, Euskal Herri aske baten alde borroka egiten du, bai nazional zein sozial mailan. Soilik klaseko alderdi bat helburu horiek lortuko dituela jakinda, erakundea alderdi horren eraikuntzan buru-belarri aritzen da gaur egun, eta horren lorpenerako eskura dituen tresna guztiak hartzen ditu bere gain; koadro militanteak sortuz, formakuntza dinamikak bultzatuz, proposamenak kaleratuz eta ildo ideologikoa herriari plazaratuz.

Oinarri ideologikoak

1. Euskal gizartea antagonikoak diren klase sozialetan zatituta dago eta gizartearen garapenaren motorra klaseen arteko borroka da.

2. Euskal Herria nazio bat da, Nafarroa (Garaia eta Behera), Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, La purdi eta Zuberoa izanik. Bere hizkuntza, kultura eta nazional kontzientzia berezi eta objektiboak ditu eta espainiar eta frantziar estatuen menpe zatituta eta zapalduta dago.

3. Ekonomi eta nazional zapalkuntza bikoitz honek, gaur egun fase inperialistan aur kitzen den kapitalismoaren eraginagatik, Euskal Herrian klase borrokaren marko autonomo bat osatzen dute. Egoera gainditzeko ahalmena duen subjektu iraultzai lea langileria da.

4. Egoera hau gainditzeko beharrezkoa den subjektu iraultzailea euskal langileria da.

Helburuak

1. Euskal Estatu Sozialista independente bat lortzea.

2. Herri sozialisten arteko elkartasun komunitate bat lortzea sozialismo unibertsal bat bultzatuz. Espainiar eta frantses estatuetan zapalduta dauden beste herriekiko elkartasuna bultzatzea eta baita ere europar eta munduko kapitalismoaren kontra borrokatzen dutenen aldeko borroka izango da internazionalismo prole talgoaren adierazpena.

3. Euskal kultura bultzatzea Euskal Herri osoko euskalduntzearen bidez.

Alderdia

1. Aipatutako helburuak lortzeko eraiki nahi dugun alderdi komunista borrokarako giltza da. Honen funtzioa, euskal langileria klase herrikoien buru bezala politiko ki eta antolatzaile bezala antolatzea, hau da, garapen historikoa eskaini dion paper iraultzailea langileriak bete dezan.

2. Alderdiak klaseen arteko borroka euskal iraultzaren eragiletzat joko du eta marxismo-leninismoa izango du errealitatea aztertzeko tresna.

3. Alderdia nazional mailan antolatuko da, aldi berean Iparraldean eta Hegoaldean.

Krisia eta sozialdemokrazia

Ofizialki 2008an hasi zen krisiak langileon bizitzako arlo ugari irauli egin ditu. Ongizate anbiguo horretan lozorroan igaro ditugun urteak iraganaren parte dira jada. Pixkanaka, lehen norma bihurtzen zena, orain kapitalaren krisiaren zurrunbiloaren erdian gaitzesten da.

Kapitalismoa krisia da. Batzuetan nabarmena den bezala, beste zenbaitetan ez da horren agerikoa baina produkzio desegituratuak, langileak, eten ezin den kontratazio eta kaleratze gurpil batera daramatza, gelditukо balitz sistema kapitalista bera gelditukо luke eta. Dena bihurtu dugu merkantzia, soldatak, eskubideak, zergak... guztiak erosiak izan daitezke eta hirugarren pertsonei salduak beste edozein produkturi aplikatzen zaizkion erregela berberekin.

Eremu sozialista existitu zen bitartean, alderdi sozialdemokratak, aliantza interklasistaren adibide argi bezala, gure mendebaldeko gizarteen oinarri sendoak izan ziren. Gero eta indartsuagoa zen langile mugimenduaren eragina arintzeko premiarik gabe, alderdi hauek beharrezkoak izateari utzi diote eta pixkanaka ostrazismora eta ahanzturara igaroko dira. Latinoamerikan formula hau berpiztezko ahaleginek, Boliviatik hasita Venezuelaraino, porrot egingo dute.

Langile klasearentzako alternatiba posible bakarra bere autoorganizazioa da, beti izan den bezala. Gaur egun, inoiz baino gehiago, langile- alderdi euskaldun baten sorrera inoiz baino beharrezkoagoa da, izan ere, aurretik daukaguna, miseria, pobrezia eta umilazioa baino ez da.

XXI.mendeko sozialismoa.
Ideia zahar anti-marxisten teorizazioa.

Mamu bat Euskal Herrian zehar hedatzen ari da,
XXI.mendeko "sozialismoa"-ren mamua.

1848an Marx-ek eta Engels-ek komunismoaren mamuari buruz hitz egiten zuten eta materialismo historikoz dohainduta "Alderdi Komunistaren Manifestua" idatzi zuten. Munduko langile klaseari zuzendutako eskuliburu zehatz honetan, klase borroken analisi historikoa egiten da, historiaren motorra dena. Iraultzaren bidez sistema kapitalista suntsitzeko, ekintza proletarioa aurrera eramatera eta klase gabeko gizarte berri bat ezartzera animatzen du.

Ez da berria komunistentzat XXI.mendeko "Sozialismo" bezalako teoria antimarxistak aurkitzea. Berritzeko eta aktuala izateko asmoz, Dieterich jaunak bestelako planteamenduak formulatzen ditu marxismoaren funtsezko oinarriak hondatuz eta faltsutuz, eta okerragoa dena, behin eta berriz azpimarratzen du sozialismo "demokratikoago eta gizakiago" batean, Lenin, Stalin edo Mao-ren eskutik aurrera eramandako esperientziak desprestigiatuz. Zelan izan dezakete garrantzia teoria hauek herri mugimendu sozialista baten, teorialariek guztiz "asmatuta" ez dutela onartu dutenean? Agian, ez da izango benetako herri mugimendu sozialista bat, progresista baizik, edo herri mugimenduaren barruan borroka ideologikoa eragin duen organizazio komunistaren faltak, teoria "sozialista" mota hauen infiltrazioa erraztu egin du.

Komunista gisa, ustezko marxista hauek desestali behar ditugu, ekoizpen kapitalistaren organizazio prozesua eta burgesiaren jabetza pribatua errespetatzen dutenak eta "estatu ez-klasista" ezartzearen aldekoak direnak klaseen adiskidetasunaren ondorioz. Posible ote da naturalki antagonikoak diren klaseen adiskidetasuna eta estatu ez-klasista baten

existentzia klase zapaltzailea errespetatuz? Logikoki ez, benetako marxista batek inoiz ez luke hau ulertuko, beraz, "sozialismo" mota hauek kontu handiz aztertu behar ditugu.

Komunistok inoiz ez ditugu gure interesak ezkutatu, gure klasearen izenean eta bere alde borrokatzen dugu, marxismoari uko egin barik eta indargabetu barik. Sistemaren aurrean kikildu gabe eta borroka elektoral hutsak, gure helburuei mugak jartzen dizkiela, langile klasea kateaturik mantentzen duela eta burgesiaren menpekotasunera kondenatzen gaituela jakinik, biolentzia iraultzaileari uko egin gabe, borroka fronte guztiak aktibatu behar ditugu. Estatuak herriarengan eragiten duen biolentziaren monopolioa apurtu, ezarritako ordena ezegonkortu agitazio-propaganda politikoa egienez eta langile klasearen interesen aldeko borroka antolatzea komunisten beharrak dira. Azken finean, antolakuntza eta borroka. Horretarako, borroka hori aurrera eramateko behar diren tresnekin hornitu behar dugu: Alderdi Komunista.

Alderdi komunistaren beharra

"Borroka talde bat sortzeko egitea eta agitazio politikoa eragitea derrigorrezkoa da baldintza "gris eta baketsuetan" ere, "iraultzaren espirituaren gainbehera" ematen den edozein garaitan. Eta are gehiago: hain zuzen ere, horrelako uneetan behar dugu inoiz baino gehiago aipaturiko lana. Izan ere, egoera lehertutakoan berandu da organizazio bat sortzeko. Bere eginkizuna berehala betetzeko prest egon behar du." Lenin.

Logikoa ematen da pentsatzea, auzo-lagun talde batek auzo-elkarte bat osatzen duen bezala, komunista talde batek ere, Alderdi Komunista baten barruan antolatzeko betebeharra duela. Enuntziatu honek, gehiegi konplikatu gabe, hain sinple eta zentzukoa dirudien arren, antza denez ez dago horren argi.

Langilegoaren egituraketa beharra ez ulertzea proletalgoari bestelako klase-sozialenak diren interesen alde lan egiten uztea da. Alderdi Komunista bat da gure klasea antolatzeko eta gure koadro komunistak sortzeko dugun lanabesa. Iraultzaren maila nagusia da. Erraza da diskurtso ezkertiarra erabiltzea lan praktikoa zehatza ekiditeko, modu honetan, masa soziala iraultzaren alde geureganatu beharra ahaztuz. Hau, fraseologia aurrerakoi, ezkertiar edo ultra-ezkertiar batekin mozorrotzen ahalegindu arren ere, errealitatea den bezalakoa da. Alderdia existitzen da sortzen duelako, proletalgoaren, sozialismoaren eta komunismoaren interesen aldeko borroka eramaten du. Komunistak antolatzaileak dira. Batez ere, langileagoaren kideekin osatzen dute Alderdia, eta kide hauek masak antolatu eta lanabes-ideologikoz hornitzen dute, praktikaren bidez borrokaren beharra uler dezan.

Harresia erori ondoren, desorientazioa gure interesen aurkako teorien agerpena erraztu du, baina jada ez gaude 1991n. Iraultzaile talde berri bat historian paper propioa eskatzen ari da. Borroka taldeak egunero ari dira indartzen. Intelektualek ez bezala, ez dugu uste gure ideologia kapitalismoaren kritika on bat baino ez dela. Zertarako balio dute gure analisiek ez bagara gai hauek praktikan jartzeko? Ekimen errealak mahaigaineratzea, plangintza zehatzak, kontsigna zehatzak, analisi jakinak egitea, soluzio zehatzak aportatzea, hori da gure betebeharra. Gaur egun, une honetan Euskal Herriko Alderdi komunista bat sortzea da irtenbide zehatz eta erreala. Beste guztia, gainontzekoa, lana beste batzuei edo beste une baterako uztea da. Eta hori ez da Iraultzaren aldeko interesak defendatzea.

Alderdiaren aurka lan egiten dutenek lotsatu beharko lukete. Une honetan hau planteatzea sozialista itxurak egiten dituzten bitartean inmorala da. Komunista batek ez du sekula beste talde edo erakunde batentzat soilik lan egin behar. Alderdian lan egitea dugu masak lan-taldeetan antolatzeko, baina gure independentzia mantenduko dugu gure interesen alde bakar bakarrik egiten dugulako lan. Ez dugu gainontzeko klaseen alde lan egiten. Beste egitura batzuen parte edo laguntzaile izan gaitezke bere garaian Fronte Popularrarekin egin genuen bezala Estatu Espainolaren kasuan edota Nazio Askapenerako Mugimenduaren kasuan, deskolonizazio garaian mundu erdian gertatu zen bezala. Hala ere, ez dugu inoiz gure klase independentzia galdu behar, gure izaera. Prozesu hau hasteko une egokia ez aurkitzea borondate ezari egotzi behar zaio.

Zerbait sortzea ez da zirkunstantzien araberakoa, baizik eta gure politika beste klaseen aurkako borrokan integratzeko borondatearen araberakoa. Ez dago momentu egokirik, hau borrokarako proiektua da eta, ez dago esan beharrik kapitalismoaren sarepean gaudelarik, horretarako aukerarik ez zaigu faltako. Murgilduta gauden egoeran, gure gizartearen oinarriak arriskuan jartzen duen krisi baten erdian eta langabezi tasa beldurgarri baten zama pairatuz, Alderdia ez sortzearen aldeko iritzikoak barregarri agertzen dira. Ba ote dago hau baino momentu egokiagorik? Leninen esanetan: "Hurrengo urratsa eman behar dugu: herri maila guztiak iratzarri behar ditugu, kontzientziazio maila minimo bat eduki dezatela, salaketa politikoarekiko grina. Ez gaitzala izutu, politikoki salatzen duten ahotsak, orain, hain arraro eta lotsatiak izatea."
Praktika iraultzailea garatzeak hiru gauza inplikatzen ditu: klase borroka bultzatu eta zuzentzea, herri kontzientzia politikoa garatzea eta Alderdiaren abangoardia antolatzea, Alderdiaren zuzendaritzapean leudeken organizazio zabaletan masak berrantolatzen ditugun bitartean.

Abangoardia organizazio interklasistei uztea gure helburua ahaztea da. Barrutik bakarrik lan egitea "entrismo troskista" da, gure burujabetasuna ahazten gabiltzalako. Borrokaren kontzientziazioaren eta antolaketaren arteko oreka beharrezkoa da. Praktika da abiapuntua eta Alderdiaren ekintzen oinarria. Gure beharrizanak ahaztuz bestelako estruktura batzuetan lan egitea atzerapauso bat da, gure buruaz beste egitea. Leninek



ohartarazi gintuen: "Hitza ere ekintza bat da, egia hau ukaezina da masen akzio politiko deklaratua falta zen garai historikoetara aplikatzen badugu. Dena den, guzti hau ezin daiteke artifizialki sortu. Iraultzaileengan koherentea dena, akzio politikoa dagoen neurrian bakarrik uler eta gauza daiteke, transparentzia osoz eta klase eta masei iruzurrik egin gabe... hau gauzatu denean, ...beste batzuetan bezalaxe "hitzarekin" konformatzea, akzioari bidea emango dion kontsigna formulatu gabe, teoria hil eta antzu bat proposatzea da." Eta honetarako jaunak, Alderdi Komunista izeneko lanabes bat beharrezkoa da. Hitzekin konformatzea eta akziora pasatzeko interes gutxi erakustea ideologia burgestxikiaren bereizgarria da. Komunistok munduaren gure ikusmoldea itxuraldatzen dugu presente dauden errealitateak aztertuz eta oinarri honen gainean, proposamen iraultzaileak eta hartu beharreko neurriak barne hartzen dituen linea politiko bat formulatuz. Nola ezarriko diogu linea politiko bat gure errealitateari Alderdirik gabe?

Alderdia ez da une egokiari itxaroten sortuko, gure koadroak borrokan gogortuz baizik. Ahots propioarekin parte hartu behar dugu borroketan. Euskal Herrian edo hego Afrikan, kapitalismoa presente dagoen edonon.

Soilik sozialismoak bideratuko gaitu independentziara

Soilik azken hiru urteko errepaso bat egin behar da Euskal Herriko panorama politikoa zenbat aldatu den ikusteko. Kapital internazionalaren eraso odoltsuak europar langileak belauniko jartzera behartu ditu, kapitalismoaren krisi estrukturala bere bizi baldintzen ukapenekin, soldatekin eta eskubideekin ordaindu duten langileak hain zuzen ere.

Barne Produktu Gordinaren bidez neurtuta aberastasunaren %71a kontrolatzen du gizon-emakumearen %15ak. Euskal Herrian, deklaratzen diren errenten erdia %21ak eskuratzen dute, beste erdia aldiz, %62ak eskuratzen du. Eta geratzen den beste %17a? Pertsona hauei klase zapaltzaileek haien bizi baldintzak hobetzeko aukera guztiak ezeztatzen dizkiete. Herri honetako 500.000 herritarrek 1.000 euro baino gutxiago kobratzen dute. Lanbide arteko gutxieneko soldatak, modalitate desberdinen pentsioak eta errenta basikoa pobreziaren mailaren azpitik jarraitzen dute.

Mundu finantzarioaren desregulazioaren teoriak guzti honen benetako jatorria ezkutatzen du, merkatua lortzeko borroka, Europa, Japonia eta Estatu Batuen arteko emulazio baketsuaren bitartez egokitze minimoak onartzen dituena. Aldi berean, beste potentzia ekonomiko batzuk agertzen dira, China, Errusia eta India, eta hauek beraien burua munduko merkatuan estrategikoki kokatzeko borrokatzen dute haien aurkariak sufritzen duten higadurari esker.

Beraz, egungo krisia ez da ustekabeko fenomeno aleatorioen emaitza, izan ere Marx, Engels eta Leninen aurreikuspenak, gaur egun bizi-bizirik dirautenak, puntuz puntu betetzen ditu.

Gure maisuek erregimen kapitalistaren kontraesanen areagotzearen benetako jatorria eta azken finean, bere erorketa ikusi zuten. Eta ez zuten ikusi indar produktiboen gelditasunean, baizik eta hauek garatzen diren bitartean gero eta larriagoak diren produkzio indarren eta produkzio erlazioen arteko gatazkan.

Kapitalismoa bere burua suntsitzen ari da, krisi bakoitzak gero eta langile gehiago bidaltzen ditu pobreziaren lerroetara, lanean dauden erlazio sozialen gaineko koakzioa mantentzeko hain garrantzitsua den erreserba ejertzito hori. Gainprodukzio arazoak konpontzetik urruti, produkzioaren anarkia dela eta, kapital internazionalak aplikatzen dituen neurri bakoitzak egoera okertu baino ez dute egiten. Langile klasearen bizi baldintzak okertzerakoan, kontsumoa jaisten da eta honek ekonomian eragin handia du, kanporaketa eta prekarietate gehiago eragiten baitu.
Nazioarteko mugimendu komunistaren zatiketa, eremu sozialistaren erorketaren aurretik zatituta dagoena eta organizazio indartsuak eta iraultzaileak bultzatzeko gai izan ez

dena, egoera konkretuen analisi desegokiak eta langile klasearen tresna historikoen ulermen eta formakuntza faltak eragin du, hau da, marxismoa. Herri bakoitzean ikus ditzakegu organizazio desberdin ugari, denak ildo justu batekin eta langileagoaren bidea argitzen dutenak, guztiak elkar antolatzeko gaitasunik gabe eta proposamen zehatzik gabekoak, alderditik haratago, sozialismo orokor bat eta ideia hau aurrera nola eraman jakin gabe. Praktika da ideien balioa frogatzen duena.
Euskal Herria ez da aldaketa hauetatik kanpo geratzen eta hemen desadostasunak zauri sakonak eragiten ditu. Organizazio komunista ugariek kontraesan nazionalari, lurraldetasunari eta sozialismoari berari buruzko ikuspuntu desberdinekin proiektu bukatu gabe bat aurrera eramateko borrokatzen dute. Batzuek proposamen elektoralak aurkezten dituzte beste fronte bat ordezkatzen eta beste batzuek ezker abertzaleari inoiz izan ez duen ñabardura komunista exijitzen diote. Talde komunista guztiak lan politikoa atomizatzen duen sektarismoan kokatu dira. Iruzur elektorala ezin daiteke prioritatea izan, ezta fronte bat gehiago ere, organizazio horiek masak dauden lekuetan aurkitzen ez direnean.

Bestalde, ETAk iragarri duen berrogeita hamar urteko borroka armatuaren bukaera baloratu behar den gertakizun bat da.

Komunista askok pentsatu dute ezker abertzalea euskal mugimendu komunistaren abangoardia dela nazio askapenerako abangoardia delako. Guk uste dugu hau ez dela egia. Ezker abertzalearen barnean beti existitu dira sektore desberdinak, komunistak, sozialistak, abertzaleak eta paradoxikoki, baita anarkistak ere. Hau, alde batetik, posible izan da independentziaren aldeko herri mugimendu bati esker, Herri Batasunak ordezkatuta, organizazio ugarien bateratzeari esker osatu zena, batzuk langile joerakoak besteak

beste. Bere oinarritik herri batasun bat izateagatik sektore politiko ugarien barneratzea ahalbidetu egin du. Bestalde, klaseen arteko batasun bat izaterakoan, erraztu egin zuen garrantzitsuagoa izango zen beste batasun bat, independentzia eta sozialismoaren lema ideologikoa zuena, euskal langileagoaren (langile klase desberdinen batasuna soilik klase berdin batean bihurtuz) terminoaren agerpenarekin.
Azkeneko urteetan nazioarteko mugimendu politiko antinperialistak izan duen transformazioak Euskal Herrian eta baita ezker abertzalean ere eragina izan du. Independentziaren eta sozialismoaren borrokatik, eredu bolibariarraren onarpena izan da bere erdi eta luze eperako estrategiaren aldaketa. Instituzioetan garaipen bat lortzea herri borrokaren bidez, esparru hori aldatzeko eta gehiegi ezagutzen ez dugun sozialismo orokor bat garatzeko, baina oraingoz maila altuenetan parte hartzea galarazten ez duena, adibidez, kutxen bankarizazioetatik sortu den euskal banku berriaren sorkuntzan eta kudeaketan.

Oinarri ekonomikoa da gizartearen euskarri den estruktura politiko eta soziala zehazten duena, erreproduzitzeko era zehazten duena, kasu honetan familia patriarkala, eta denak honela jarrai dezan bermatzeko aparatu hertsatzaile guztia zehazten duena. Euskal Herria inoiz ez da askea izango euskal ekonomia zehaztuko duen nazioarteko kapitalarekin erlazio ekonomiko estuak mantentzen baditu, garapen ekonomiko eta sozialak eusten dituen erlazio sozialak aldatu gabe. Eta hori, zoritxarrez, botere politikoa bidegabeki bereganatzen duten familiak kanporatu gabe ez da posible izango, eta inoiz ere ez, prebenda tenporalak itunduz. Hauek, ekonomiaren bilakaeran oinarrituta daude, eta kapitalismoan jadanik badakigu, aldakorrak dira ekonomiaren krisi ziklikoak direla eta.

Estatuaren kapitalismo monopolistak edo inperialismoak kapitalismoaren azken fasea osatzen dute eta gobernuak hartzen duen itxura edozein izanda ere, burgesiak bere eginkizun demokratiko-burges guztiak lortu egin dituela adierazten du. Estatuaren kapitalismo monopolistan, indar produktiboen eta erlazio produktiboen garapenaren arteko kontraesanek bere kota maximoa lortu dute. Sozialismoaren aldeko borroka ez den guztia, nahiz eta fraseologia erradikalenagatik estalita egon, kapitalismoa iraunarazteko proiektu azientifiko bat baino ez da.

Beraz, Euskal Herria sozialismora heltzen ez bada, edo hobeto esanda, euskal langileagoak sozialismoa ezartzen ez badu inoiz ez da bankuen eta monopolioen loturetatik eta konpromisoetatik aske izango. Gaur egun gertatzen den bezala, espainiar eta frantziar burgesiaren menpean geratuz eta ondoren, Estatu Batuekin borrokan ari den Alemaniaren menpean geratuz, indarrez gure ekonomian sartzeko ahalegina egingo luketenak. Historia aberats batetik eta ezagutzen ditugun iraganeko esperientziatik abiatuta erratu gabe konfirma dezakegu Euskal Herrian bitarteko faserik existitzen ez dela. Lehenengo independentzia eta gerorako uztea sozialismoaren aldeko borroka, euskal burgesiaren ondoan kokatzea dela, bere proiektua defendatzea eta bermatzea, langile klasearen proiektua garatu gabe, euskal langileagoaren alderdia.

Borroka kalean dago

Sarritan komunikabideak "bakea" eta "biolentziarik ez" hitzak erabiliz, lezio moralak ematen saiatzen dira. Biolentziaren monopolioa duen Estatuaren menpe dauden komunikabide horiek zapaltzaileen bakea segurtatzeko estruktura politikoen biolentzia metodoak justifikatzen eta bermatzen dituzte.
Estatuarentzat bakea bere biolentziaren aplikazioa edo bere biolentzia sistemaren iraunaldia da, aldi berean, biolentzia faltak bere etsaiarengandik erresistentziaren eza suposatzen du.

Gaur egungo gizartean biolentziarik ez egotea praktikoki ezinezkoa da, ekoizpen bideen jabetza pribatuaren existentzia desberdintasun sozialak ahalbidetzen baitituzte, hau da, esplotatzaileak eta esplotatuak agertzen dira. Horregatik klase zapaltzaileak bere pribilegioak mantendu ahal izateko eta klase zapalduaren edozein aspirazio iraultzaile geldiarazteko sistema zapaltzaile baten beharra du.

Klase zapalduaren erantzuna edozein borroka tresnaren erabilpena izan behar da, klase zapaltzaileak inposatutako kateak apurtzen lagundu beharko diona. Eta horretarako beharrezkoa egiten da Estatuak duen monopolioaren biolentziarekin apurtzea, borrokarako tresna bezala biolentzia iraultzailea erabiltzea eta honela teoria iraultzaileak atxikita duen beharrezko praktikotasunarekin klase zapaldua hornitu ahal izatea.
Ezin dugu besoak uztarturik gelditu langile klaseari hainbeste bizitza kostatu zaizkion

eskubideak murrizten dituzten bitartean. Iraultza aurrera eramateko antolatzen garen bitartean, kaleetan kapitalaren interesen aurka egin ahal ditugun ekintza bortitzak ematen digun esperientziaz hornitu behar dugu; egoitza politiko eta sindikalak, bankuak, komisariak, ett-ak, enpresa nagusiak, etab... izan behar dira gure gorrotoaren objektiboa. Biolentzia hau bideratzea, sistemaren pilareak zuzenean erasotuz boterea kolokan jartzen dugun bitartean, etorkizuneko botere-hartzea ahalbidetzeko beharrezkoak diren organizazioak garatzea iraultzaile ororen beharrak dira.

Zapalduen biolentzia nola edo hala komunikabideez baliatzeko adierazpen forma bat da eta gure ekintzak, desadostasuna eta sistemaren aurkako jarrera ezagutzera emateko balio izaten du. Ekintza zuzena eta sabotajea komunikabideek gure ekintzen eta ideiengana dituzten blokeoa eta isiltasuna apurtzeko balio dute. Biolentzia iraultzailea inposatutako ordena aztoratzeko forma bat da, legalitatearekin apurtu ekintzei zentzu politiko bat emanez, ekintza bandalikoa izan litekeena ekintza politiko bat bihurtuz. Eta baita ere justizia egiteko beste forma bat da, demokrazia burgesaren inposizioari, prekarietate laboralari, kriminalizazioari, torturari, poliziaren basakeriari, etab... aurre egiteko era.

Biolentzia iraultzaile honen erabilpenak ez gaitu beste borroka eta organizazio esparruetan herritarrengandik urrundu behar, guztiz kontrakoa baizik, konfrontazioaren areagotzeak, hau da, klase borroken areagotzeak, aldaketa sozialaren prozesua azeleratzeko balio izan behar duela herriari azaldu behar diogu eta argi utzi behar dugu aldaketa partzialekin konformatuko ez garela, berdintasunean eta elkartasunean oinarritutako erlazio sozialen sistema bat dela gure helburua.